

IDEIA:

Gure egitasmoa berrogeialdiak ekarri dituen bizipenetan du jatorria. Hiru hilabete luzeetan zehar etxean sartuta egon gara, bizitza arruntetik erabat urrun, familia-kide eta lagunekin egon ezinik. "Normaltasun" mugatu batetara bueltatzeko aukera izan dugunean, ezagun eta lagun asko oso gaizki pasatu dutela jakin izan dugu, faktore ezberdinak direla eta: beldurra, ezjakintasuna, urduritasuna eta antsietatea, bizitza normala ezin egitea, aspergarritasuna, maite dituzten pertsonak faltan botatzea...

Gertuko lagun batek, bereziki, oso gaizki pasa zuen eta laguntza profesionalen beharra zuela konturatu ginen. Pertsona honek gainera ez zuen diru nahikorik zerbitzu pribatu bat ordaintzeko eta lagun guztien artean lagundu behar izan genion ekonomikoki psikologo baten zerbitzua ordaindu zezan. Jende asko egoera berdinean egongo zela pentsatu genuen eta horregatik, antzeko egoeretan dauden pertsoneri erantzun bat ematea pentsatu dugu. Horrela jaiotzen da psikomagikaok psikologia zentroa, COVID-19ak utzitako arazoei aurre egiteko prest dauden profesionalen osatua.